

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Hauteskundearen arbelean fisikaren bi legeez mintzo

Zorte botata dago. Biharko hauteskundeetan gertatu beharrekoa atzeraezina eta aldagaitza da. Arriskua eta erronka, gazitik eta gozotik izango du biharamunak. Agertoki mugituak, eskapatzen utzi ezin diren aukerak, zorrozuta diren labanak, lokartutako eztabaiden birpiztea... saltsa egongo da, bai. Kinielak asma-tzea ez da ariketa erraza, inkestetan ageri ez diren hainbat joerek arrastoa utziko baitute eta, bai, politikaren liturgia bere ponpa eta kearekin, udako oporretaraino behintzat, itolarri sentituko da.

Patxada pixka batekin hartu behar da guztia, arnas luezan, lasaitasunez. Egin beharreko azterketak egin behar ko dira, ospatu beharrekoak ospatu eta kezkarako motibo direnei begietara begiratu. Hartara, ezinbestekoa iruditzen zait politikan oso erabilgarriak diren fisikaren lege batzuk gogoraraztea. Politikaren ulermena errazteko eta lasaitasuna gordetze-ko lagungarri direlako oso.

Aurrena, estatubatuarrek *political momentum* deitutako kontzeptua aztertuko dut; fisikako momentuaren kontzeptuaren, hots, masa eta abiaduraren biderkatzearen, itzulpen politikoa. Ezaguna da objektua zenbat eta azkarrago mugitu gelditzen zaila goa dela. Bada, politikan, zenbat eta hobeto egin gauzak, orduan eta masa gehiago irabazten da, eta, hortaz, hori egiteko behar beste azkar ibiltzen bada, abiadura irabazten da. Estatubatuarrek diotenez, ez dago kanpaina bat irabazterik *political momentum*-a eskuratzeke. Ausarta izan, hauteskundeetatik harago pentsatu eta boto-emaileak behin eta berriz entzuterako ohituta dauden mezu politikoei alternatiba kitzikagarri emateke. Momentu horrek eramaten du garai-penera, eta, horren absenteziak, porrotera. Izan al da kanpainan *momentum*-a irabazteko plan serioren bat? Politikaren ezinbesteko osagai hori eraikitzeke zerbitzuan jarri al dira tresna eta estrategiak? Berria izan den kontakizun, ideia edo irudirik egon al da, norberaren mezuaz hitz egin, hautagaiak bat-batean identifikatu eta oinarrian diren ekintzaileak mezu hori azkar eta ondo transmititzeko motibatu dituenak?

Fisikan mugimendu kantitate dena, politikan bultzada da, txanpa, indarra. Eta abiadurarekin estuki lotuta

dago. Izan ere, zein azkar doan dena! Adibidez, duela bizpahiru hilabete Podemos-Ahal Dugu alderdiak *momentum*-a irabazita zuen. Bazirudien elur-jausi erraldoi baten lege denak eramango zituela aurretik, marka guztiak txikituko zituela. Bai azkar galdu ere *momentum*-a! Ziztu bizian, konturatzerako beste plano batean kokatu da, eta, haienez, itzuliko ez dena ez da itzuliko. Itsasoak hondarreratzen dituen olatu guztiak berdinak ez direlako, olatu ona hartzea zein garrantzitsua den! Nafarroa da horren adibide bikaina. Duela hilabete pare bat aldaketa politikoa –«erregimena» botoen bitartez kanporatzea– hatz puntekin ukitzen zen zerbait zela esaten eta irakurtzen zen, edo orain egin edo inoiz ez zela egingo; xanpain eta ardo hoberenak freskatzen jartzen hasiak ziren batzuk... Oraintxe bertan, berriz, imposiblea ez baina saihestezina dela ez du inork esaten. Momentua –fisikan bezala politikan ere inertiarekin nahastu behar ez de-

«Political momentum»-a eskuratzeke, ausarta izan, hauteskundeetatik harago pentsatu eta boto-emaileek etengabe entzuten dituzten mezuei alternatiba kitzikagarri bat emateke ez ei da irabazten

na-, umorea eta animoa bezala, oso kutsakorra baita. Kutsakor bezain iheskorra.

Bigarrenik, grabitatearekin lotutako beste lege fisiko bat daukagu: igotzen den oro jaisten da. Politikan ere isla ikusten diot nik neuk lege horri, nahiz eta prozesua ez den zertan bat-batean edo lau urteko epean eman behar. Muztio bilakatzen diren zuritoekin gertatzen den bezala, politikan ere aparrak jaitsi eta txinpartak desagertu egiten dira; boto eta konfiantzak utzi bai baina eman ez dira sekula jabetzan ematen. Gorabehera da politikaren oinarritzeko forma, haragia igotzean arraina jaisten delako, ez dagoelako esaterik hau betiko galdu denik edo hura ez dela sekula irabaziko. Zenbat eta non igoko den ezkerreko boto abertzalea, galerak norainokoak izango diren ez dago esaterik, baina emaitza politikak espero daitezke. Poz pixka bat eta hausnarketa kritikorako aukera. •